







Energia kontsumoa EAEn



Energiaren kontsumoa EAEn

Elektrizitatea

Euskadin kontsumitutako elektrizitateak %8,3 egin zuen gora otsailean, 2014. urteko hil berean izandakoaren aldean. Arloka, industrian %3 igo zen, etxekoan %13,1 eta zerbitzu alorrean %2,3.

Azken 12 hilabetearen kontsumo metatuak %3,2 egin zuen gora; industrian %0,1 igo zen, baita zementu eta karea (%36,3), elikadura (%9,1), siderurgia eta galdagintza (%3,4) sektoreek ere gora egin dute. Behera egin dutenak, ordea, beiragintza (%14,7) eta itsas eraikuntza eta konponketa (%16,1) izan dira.

Gas naturala

Otsailean, gas naturalaren guztizko kontsumoak %18,6 egin zuen gora, 2014ko otsailean izandakoarekin konparatuta. Zentral termikoena %18,1 igo zen eta gainerako sektore kontsumitzaileena %18,7.

Azken 12 hilabetearen izandako kontsumo metatuak %0,2 egin du behera, aurreko epealdi beraren aldean, (+ %3,7 CCTT-n eta -%1,1 gainerako sektoreetan).







Erregaiak garraioan

Urtarrilean, garraioan erregaien kontsumoa 2014. urteko hil berean izandakoaren maila bera izan zen. Gasolinarenak %1 egin zuen gora eta A gasolioarenak, berriz, %0,1 egin zuen behera.

Azken 12 hilabetearen izandako kontsumo metatua %0,6 igo da, aurreko epealdiarekin alderatuta. Hala, gasolinen kontsumoak %1,9 egin zuen behera eta A gasolioarenak, aldiz, %0,9 egin zuen gora.

Iturriak: EEEK prestatua, CORES, Enagás eta Iberdrolaren datuetan oinarrituta.

Kanpoko Egoera



EAetik kanpoko egoera

Petrolioaren kontsumoa munduan

Otsailean, munduan petrolioaren kontsumoa egunean 92,9 milioi kupel izan zen (2014ko otsailean izandakoaren aldean, %1,1 igo zen). Epealdi berean, Europar Batasunean %2 egin zuen gora kontsumoak, 13,5 Mbpd kantitatara iritsiz; Txinan %3,1 egin zuen gora, eta 10,5 Mbpd kontsumitzera heldu zen; AEBetan, %1,7 igo zen, eta 19,3 Mbpd kopuruan kokatu zen.

Munduan, azken 6 hilabeteen, eguneroko petrolioaren batez besteko kontsumoa %1,1 igo da, oro har, Txinan %3,7 eta AEBetan %0,7; Europar Batasunean, berriz, %1,1 jaitsi da.






Energiaren kontsumoa Espainian

Espainian, gas naturalaren kontsumoak %8,8 egin zuen gora otsailean, 2014ko hil horretan izandakoarekin alderatuta. Urte mugikorrekotako kontsumoak %6,3 egin zuen behera.

Elektrizitatearen kontsumoak gora egin zuen otsailean, %4, 2014ko otsailean izandakoaren aldean. Urte mugikorrekotako kontsumoak %0,6 egin zuen behera. Espainian, errepideetan erregaien kontsumoak %5,3 egin zuen gora abenduan, 2013ko hil berean izandakoarekin alderatuta; gasolinaren kontsumoa %2,4 igo zen, eta %6 gasolioen kasuan. 2014ko guztizko kontsumoak %1,4 egin zuen gora, 2013koaren aldean, (%0,8 jaitsi zen gasolinena eta %2 igo zen gasolioena). Bestetik, hegazkinetan erabiltzen den kerosenoen kontsumoak %9 egin zuen behera abenduan; 2014ko kontsumoa %2,7 igo zen, 2013koarekin konparatuta.

Iturriak: REE, CORES, Enagás, EEEk prestatua, AIE eta EI Aren datuetan oinarrituta.

Energiaren prezioa



Energiaren prezioa

Elektrizitatearen prezioa.

OMIE eguneroko merkatuan, Espainian, elektrizitatearen prezioa 42,6 €/MWh izan zen otsailean; duela urtebetekoaren aldean, %148,7 egin zuen gora.

Gas naturalaren prezioa.

Alemanian, inportazioaren batez besteko prezioa 23 €/MWh izan zen urtarrilean, eta %16,8 jaitsi zen, 2014ko hil berean izandakoarekin erkatuta. Otsailean, EGIX-en prezioa 23,2 €/MWh izan zen (2014ko otsailean izandakoarekin alderatuta, %0,5 jaitsi zen).

Otsailean, Henry Hub-en prezioa 8,6 €/MWh izatera iritsi zen, 2014ko hil horretan izandakoarekin konparatuta, %28,9 jaitsi zen. Japonian, hil berean, 40,2 €/MWh izan zen (2014ko otsailean izandakoaren aldean, %4,1 egin zuen behera).

Petrolioaren prezioa.

Brent petrolio upelaren batez besteko prezioa 57,9 \$ (51 €) izan zen otsailean. Urte mugikorraren batez besteko prezioak %16,7 egin zuen behera (-%15,1 eurotan).

Erregaien prezioa.

EAEn, abenduan, gasolioaren prezioa 1,13 €/l izan zen (urtebetean %14,2 jaitsi da), eta gasolinarena 1,17 €/l (urtebetean %14,2 jaitsi da).

CO₂-aren prezioa.

CO₂-aren EUA baimenaren etorkizuneko prezioa 7,3 €/t izan zen otsailean, eta urtebete lehenago izandakoarekin konparatuta, %12,4 egin du gora.

Iturriak: EEEK prestatua, OMIE, CESUR, CNE, EEX, YCHARTS eta BAFaren